

① ELHEKETA - ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

1. Nor zen Migel Pocodineru?
2. Erakus zazu hantetsi-gai horren
3. Zertako, zuen ustez, leurratu zen etxera hura?

II

ALKATE-JAUNA

Hogoi urte hartan bederen, herriko<sup>1</sup> gizon izana gatik, behin ere ez zen mera edo alkate izendatua izan Migel Pocodineru. Alta heldu nahia zen, xarpa<sup>2</sup> pollit hartara! Baina, bethi sudurraren petik iragaiten zitzaion auzoko Agustinen gerruntzearen aphaintzera joaiteko.

Azkenean, noizpeit, hor hiltzen da Agustin; eta Migel, ezpainak milikatuz zagon, alkate-jauna egin behar zen bozka-egunaren beha. Ahanztera nindoan, Espainian gerthatua dela gure ixtorioa.

Eskua bati hunki, bertzeari bizkar gaina, bertzeari papoa; bati baso-arnoa paga, bertzeari aguardient-kotxeta<sup>3</sup>, ibili zen beraz Migel jo harat, jo hunat, dena irri, dena elhe, arima herratua iduri, herriko etxeko-jaun batetarik bertzera. Izerdi bat baino gehiago gosta zitzaion... Eta zonbat pezeta?! Baina zer zoakon, herriko alkate-jaun egiten zuten ber? Eta nungo alkate oraino? Hogoi etxe segurik baziren elizari hurbil, eta bertze bizpahiru oraino mendi gain batean; orotarar, hogoi (eta hamar gizon, berrogoi eta hamar emazte, eta beste hainbertze haur ttipi! Madrile arte hartan guzian ez zen halako herri gothorrik.

Hor ethorri zen beraz eguna, maiatzeko egun bat ederra, dena argi, dena iguzki, dena lore, eta Migel... Errekaxarreko alkate-jauna izendatu zuten.

Espainiako errege ez zen hain dohatsu izan behin ere, nola baitzen, arrats hartan, Migel Pocodineru. Iduri zitzaion liza dorreko ezkila, zartain zahar baten azantzarekin<sup>4</sup>, bilim-labamba abiatzera zoala, alkate berriaren ohoretan. Gain hartan izarrak, dir dir dir, irriz ari zitzaion, hogoita hamekaren keinua egiten zakotela. Athe leiho guzian artetik ikusten ere zituen bere ustez, herriko emazteen sudurrak, alkate-jaunaren ganat luzatuak. Karrika ezkina batean, tipula axal baten gainean lerratu zen, eta zabal zabala erori. Baina, den mendrenik kexatu gabe, altxatu zen polliki, ustez<sup>5</sup> eta haren ohoretan hedatu arrosa edo hostaila zombaiten gainean egin zuen lerrakoa.

Hots, loriatua heldu zen etxerat, Migel alkatea. Eta zer ohoreak sarri, sukaldean sartzean, doña Pokodineru bere emaztearen ganik! Ai! Jesus!...

Hainbertzenarekin, etxeraten da, eta atheari panpaka hasten: Pan, pan, pan! Supazter xokotik xanpaka<sup>6</sup> altxatzen da Xuriko, eta Manuela, alkate-jaunaren emaztea, zizeluaren gainean lokartua baitzen, erdi lo oraino, harrotzen da ahal duen bezala, eta arraxina<sup>7</sup> eskuan, atheari hurbiltzen:

III. ADITZ IKASKUNTA.

31. Ahanztera nindoan. 32. Zer zoake

33. Iriz ari zitzaion 34. Egiten zakotela

31. JOAN. - Indicatif. Imparfait

Ni nindoan	= j'allais
Hi hindoan	= tu allais
Zu zinoatzin	= vous alliez
Hura zoan	= il allait
Gu ginoatzin	= nous allions
Zuek zinoatzin	= vous alliez
Hek zoatzin	= ils allaient

32. JOAN. - Régime indirect. Imparfait

(Hura) Zoan	= il allait
Hura (lui) Zoakitan	= Il m'allait
Zoakizun	= Il vous allait
Zoakion (zoakon)	= Il lui allait
Zoakigun	= Il nous allait
Zoakizuen	= Il vous allait
Zoakien	= Il leur allait

33. JEAN. - Régime indirect. Imparfait

Hek ziren	= ils étaient
Hek (eux) Zitzaizkitan	= ils m'étaient
Zitzaizkizun	= ils vous étaient
Zitzaizkion (zitzaizkon)	= ils lui étaient
Zitzaizkigun	= ils nous étaient
Zitzaizkizuen	= ils vous étaient
Zitzaizkien	= ils leur étaient